





Galdakao

Bedia

Lemoa

Igorre

Arantzazu

Artea

12

Areatza

Zeanuri

Otxandio

Arratia harana

12

Arratia harana

Paisaia hutsagatik artelan eta monumentuengatik bezain erakargarria den ibilbide hau Bilbon hasten da: N-634 errepidetik Galdakaora heltzen da; apur bat aurrerago, Urgoitiko bide gurutzean Gasteizera doan N-240 hartu, eta Zeanurira heltzen da, Gorbeia magalean. Otxandion amaitzen da, Barazar mendatea igaro eta gero.



Aurreko orrialdean:


Otxandioko pilotalekua. Euskal Herrian, estali gabeko frontoien geometria kartesiarrak eragin handia izan da hirigunea antolatzean.

Orrialde honetan:

Galdakao. Elexaldeko erretaula nagusia. Erretaula platereskoetan pasarte sakratuak ageri ohi dira, ebanisteria lan xehe-xehe inguratutako tauletan.

12o. orrialdea:

Elexaldeko portada. Estiloa gotikorako trantsiziokoa da, eta misterioak eta Salbazioaren alegoriak erakusten ditu tinpanoan eta arkiboltetan.



Galdakao

xx. mendearen hasieratik lotu zitzaion industria-jardunari, eta horren ondorioz oso gune jendetsua bilakatu da –goiko aldean ez hainbeste–.

Elexaldeko Andra Maria eliza

Bizkaiko ezagunenetakoa da, bere portale apaindu eta ikusgarriagatik: XIII. mendearen amaierako lehen gotikokoa da, baina erromanikoaren aztarnak ditu diseinuan. Habearte estu bakar bateko eraikin apala izan bide zen jatorrizkoa; hartatik atzealdea, kanpai horma eta portalea gelditzen dira. Ez da garai berekoa burualde zabala: bi tarte eta altuera bereko hiru habearte ditu, bi zutaberen gainean bermatzen diren izar ganga nerbiodunez estalirik dagoela. 1530 inguruko zutabedun areto errenazentista da parte hori. Aipaturiko portaleak –zorrotza eta hiru gingilduna– irudiz beterik ditu arkiboltak eta tinpanoa: birjina ergelen eta birjina zuhurren parabola, hildakoen berpizkundera, Iragarpena, giza irudiak, animaliak eta abar. Tailla eta karakterizazioa Burgosko gotikoaren moldekoak dira.

Erretaula nagusia. Kapera nagusian dago: egur urreztatuan eginiko zurgintzalan aipagarria da; taxu zuzeneko da, eta laukitegi itxurako diseinua du, erliebean landutako istorioek eta maskorrek betetzen dituztela erretaula-hobiak. Gainera, taillak aipatu behar dira (erdiko kalea), mazoneria gotikoko doselen

azpian, eta «erromatar erara» atonduriko dekorazio oparoa. Pedrela izan ezik –XVII. mendekoa da–, 1530 inguruan eta estilo errenazentistaren barruan datatu behar da, Bizkaiko familia platereskoaren baitan zaharrenetakoa.

Bi alboetako erretaulak. Ia berdinak dira: **San Josef, Andra Maria Sortzez Garbia, Done Mikel eta Santa Ageda.** Barroko jatorreko zutabe mahatsez horniturikoen bidez modulatu dira. Pedro Alloitzek kontratatu zituen, 1660an.

Elexaldeko parrokiako titularraren irudia estilo erromanikoko Andra Maria eseria da, 1950ean oso errestauratua.

Bedia

Elizate landatar bezain industrialia da; elizari dagokionez, Galdakaoren menpean egon zen hainbat mendetan.

Done Joanes Bataiatzailea eliza

Errepidearen eskuinaldean, deigarria da kanpai hormaren silueta hozkatua, oinaldeko fatxadaren gainean. Eraikinaren aurrealdean gailentzen da. Gurutze formako eliza da, bi tarte, gurutzadura eta burualdea dituena, elizpe batek ia guztiz inguratzen duela. 1750ean inauguratu zen parrokiak modura. Data horretakoa da eraikina bera ere, adreiluzko ganga izan ezik, 1868an fabrikatu eta xx. mendean hormigoiz berregin baitzen.

Erretaula nagusia. Ez dago dokumentaturik egur urreztatuan eginiko altzari interesgarri hau; 1765 ingurukoa da, eta apaingarri rokokoaz beteriko zutabe ildaskatuak ditu: arrokia, «draperies», lore eta abarrez osaturiko dekorazio aberatsa. Urreztatzea, berriz, dokumentaturik dago: Manuel eta Roque Fernández de la Vegarena da, 1789koa.

Lemoa

Zementu fabrikaren ingurukoa da elizate honen jardunaren zati handi bat. Elizondoko jatorrizko erdigunea, parrokiak buru duela, urrun samar

gelditzen da gaur egun jende gehiena bizi den lekutik.

Andra Maria eliza

Gurutze formakoa da: hiru tarteko habe-arte bat, gurutzadura eta kapera nagusia ditu, ilargixka eta ertzez eraturiko adreiluzko gangek estalirik. 1757az geroztik dago dataturik, eta proiektua Antonio de Vega kantabriarrarena da. Estiloa: barroko soila, ornamentazioari zirrikiturik utzi gabe.

Igorre

Gasteizerako errepide nazionalak zeharkaturiko elizate industrialia da gaur egun. Gunerik zaharrena parrokia-elizaren ingurukoa da.

Andra Maria eliza

Itxura konplexuko eta biografia gora-beheratsuko eraikina da, 1515 inguruko gune gotiko zahar baten gainean egindako zenbait berreraikuntza eta zabalkuntzaren emaitza baita; estilo gotikoa oinaldean suma daiteke, ganga nerbioduna dagoen lekuan. 1756an, txikia zela eta zabaldu beharra zuela adierazi zen eliza deskribatzean; hala egingo zen gerora, eta 1928-1930eko erreformekin osatuko. Arestian errestauratu da.

Erretaula nagusia. Salomonikoa da, eta mahatsez zamaturiko zutabeek eratzen dute egitura, barroko jatorraren arabera. Josef Alkortak egin zuen, 1708an, Martin Olaizolak marraztu ondoren. Irudi eta margolan batzuk berrerabiliak dira.

Bilbon desagerturiko Joanes Santu bien elizatik dator erretaula hau: Igorreko eliztarrek erosi zuten, 1784an.

Antonio Santuen ermita

Parrokiatik hurbil dago, bide zaharraren ondoan. Habearte bakarra du, bi tarte eta burualde errektangeluarra dituena; aurrean atari aipagarria dauka: arkuz eraturiko bi sarbide alboetan, eta bi zutabe toskanarretan bermaturiko aurrealde ireki eta dinteldua. Burdin hesiaz itxita dago.



Orrialde honetan:

Elexabeitia. San Migel eliza ezaguna da, Bizkaian berak bakarrik daukalako fatxada egurrez estalia.

123. orrialdea:

Elexabeitiako koruko karela, jabaloia eta zurburuak euskal arotzeria tradizionalaren erakusgarri argiak dira.

Vera Cruz kofradiarentzako ermita-santutxo handi samarra da. 1666an, Martin Garai harginak eta Pedro Gandarias arotzak kobratu zuten haren-gatik. Eta 1707an, Lukas Bengoetxeak, Juan Elexaldek eta Pedro Etxebarriak, atariagatik. Burdin hesia 1670ean ordaindu zen.

Irudiak. Hiru piezako kalbarioa, estilo gotiko berantiarrekoa. Antonio Abadea eta Paduakoa Santuen tailla rokokoak: lehena Bilbon erosi zen, 1781ean, eta bestea 1767an dataturik dago.

Arantzazu

Elizate txikia. Ibilbidearen eskuinaldean dago, nabarmendu gabe.

Done Petri eliza

Gurutze formako eraikin neoklasiko txikia da. Jatorrizkoari antzematerik ez dago barrutik, igeltsuzko ganga kendu eta egurrezko euskarri-egitura agerian gelditu zenetik. Kareharri grisean eginik dago, eta Manuel Fermin Bidaurren lana da, 1826koa.

Erretaula nagusia. Txikia: gorputz bat eta atikoa ditu, hiru kaleko pedrelaren gainean. Zutabe korintoarrek zehazten dituzte kaleak. Pedrelako hobietan, Ebanjelarien panelak daude; gorputzekoetan, berriz, eskultura exentuak: Done Jakue Gaztea eta Done Paulo, Done Petriren alboan. Andra Maria Sortzez Garbiaren irudia dago atikoan, eta gurutzefika koroatzean. 1600 inguruko pieza erromanista da.

Horrez gain, Andra Maria eta Jesus Haurren tailla bat dago, xiv. mendekoa.

Arteaga-Gatzelu-Elexabeitia

Hainbat mendetan, bi parrokiaren artean banatu zen herri honetako eliztarren zentsu txikia. Andra Mariarenak eliza neoerdiarotar bat du egoitza: errepedearen ondoan dago, ezkerraldean. Bestera heltzeko –Elexabeitiko Done Mikel–, eskuinetara hartu eta kilometro erdi bat egin behar da.

Elexabeitiko Done Mikel eliza
Bizkaiko tenplu gutxi izango dira Elexabeitiko Done Mikel eliza bezain ezagunak. Egurrezko fatxada eta dorreari zor dio antzinasunaren ospea, aspaldi-aspaldiko argazkiek zabaldu baitute haren irudia. Arotzeria-sabaiak, ordea, ez dira hain ezagunak.

xv. mendearen amaierako tenplu gotiko txikia da: lau tarteko habearte estu bat dauka, eta almizate lauko kasetoiduraz apainduriko sabai oso interesgarria. Elizpe enkatxodunak inguratzen du, eta bere perimetroan inskribaturik dago kanpandorra, egurrezko egitura-zutoin eta itxiturak dituena. Korua ere aipagarria da: oinaldean kokaturik, mihizaturiko oholez eraturik dago; sarraila-begi eta husturiko triangeluen formako arku txikiez osaturiko saretu du eskudelean landurik.

Sarbide zorrotzaren arabera 1500 aldera dokumentatu behar da; korua 1540 ingurukoa da; euskarri-egitura 1600ean egingo zen gutxi gorabehera, eta dorrea 1621ean. Desegokiro errestituratu zen 1923ean, eta orain dela hamabost urte jatorrizko itxura berreskuratu zen.

Areatza

Bizkaiko jaun Joan Nuñez Larakoak fundatu zuen «Villa de Haro» zaharra (Villaro –gaur egun Areatza–), 1338an, Arratiako leku lau eta ustez estrategiko batean. Emaztearen abizenaren omenez jarri zion izena: Maria Diaz Harokoa.

Hirigintza

Maila ezberdinetan marrazturiko bi kaletan antolatzen zen herria: Goikokalea (Susera) eta Bekokalea (Yusera). Lehenengoan eliza kokatu zen, eta bigarrean plaza (Gudarien Enparantza), leku nasai eta luzanga. Bi kalezulo –Ilargi eta Zubizarra– lotzen dituzte bi kale nagusiak. Harresi txiki bat eduki zuen, eta errebal lineal bat garatu zuen hegoalderantz (Errukiñe).



Done Bartolome eliza

Historia konplexua du, hainbat aldiz zabaldu eta erreformatu baita, burualderantz betiere. Kanpoaldetik ikusten da interesgarriena: bi portaleak. Oinaldekoa: garaitza-arku errenazentista tipikoa, estilo klasikoko zutabe pareen artean markoztatua; hobietan, Rodrigo Ozolok 1563an eginiko harrizko irudiak, ez oso maila onekoak.

Bestea eskuinaldean dago: dobeladun diseinu zorrotzekoa, zaharragoa da, xv. mendekoa (1494), giltzarriko idazkun eztabaidatu, zakar eta hondatuaren arabera.



Udaletxea

Plazaren alde bat definitzen du eskola zaharren eraikin gehiegizkoak, osorik hartzen baitu. Oso tankera etzaneko bi solairu ditu, eta, behean, hamaika arkuko ataripe jarraitua, hiru gorputzetan modulatu. Molde jaso eta aberatsean landurik dago –kareharri landua zati nagusian–; azpimarratzekoa da estilo neoklasikoak xix. mendearen garai hartan indarrean irautea, 1862an marraztu baitzuen Pedro Luis Bengoetxeak.



Gortazar jauregia

Udaletxearen jauregiaren aurrean, herriko eraikin zibilik adierazgarriena da. Bi gorputzeko elementu kubiko honetan –behekoa harlanduzkoa da, eta goikoa adreilu trinkoaz egina–, goiko solairuko luzituaren gainean eginiko horma-margolanak dira interesgarriena: estilo barrokoan eta dagoeneko galdu samarrik, gai alegorikoak erakusten dituzte –armarria–. Beheko parteak, ordea, jauregiaren izaera errenazentista erakusten du argiro, erdi-puntuko sarrera dobeladun eta albora ekarriaren bitartez.

Alkatxofaren iturria

Plazaren mutur batean dago: harraska biribila dauka, eta beheko gorputz poligonala, lau txorrota diagonal jartzeko moldatua; horrez gain, altuera handiko

fuste toskanarra du, ildaskatua eta plinto garaiaren gaineko pinaburuak (orburua) koroatua. Areatzako zinegotziek Martin Sarasibar gasteiztar akademikoari agindu zioten, 1851ean, iturria egiteko, udal ekimeneko benetako monumentua izan zedin, hiribilduko lekurik garrantzitsuenean. Estiloa: neoklasizismoa, Erromarekiko zorrak agerikoak direlarik.

Etxe gotikoa

Errukiñe errebaleko 2.ean dago, mehelin hormen artean. Kanpoaldetik, giro hiritarrek etxe gotikoaren ezaugarri tradizionalak hartzen ditu: hiru solairu –azkena hegada eginez irtena–, mehelin hormen arteko kokapena, eta eraikuntza-gai pobreak. Ale honetan, igeltsuzko dekorazio oparo eta luxuzkoa aplikatuz ezkutatu nahi izan zuten pobretasuna, Errege-erregina Katolikoek garaiko estilo gotikoa ongi definiturik dagoela: soka itxurako konopioak eta zirkulu tangenteetan inskribaturiko trazeriak. Ez da inolako aipurik egiten etxea agindu zuenaren noblezasunaren inguruan. Gisa honetako etxeak Gaztelan ohikoak badira ere, Areatzakoa bitxia da Bizkaian; edonola ere, balio handiko ondare elementua da, nahiko hondaturik egon arren.



124. orrialdea, goian:

Areatza. Etxe gotikoa. Bizkaian urri dira mota honetako igeltsu lanak: lau hostokoen sare bat eta konopio sokadunak leihoen gainean.

124. orrialdea, behean:

Bizkaiko beste batzuek bezala, Areatzako Gortazar Jauregiak pintzelkadak dauzka kanpoaldean. Honako honek armarriak eta errotuluak, eta beste batzuek gertaerak.

Orrialde honetan:

Zeanuri. Erretaula nagusian deigarriena ez da egitura barrokoa, berrerabilitako margolan gotikoak baizik.

Zeanuri

Gorbeia inguruetakoa landa-elizate zabala da, zenbait auzo edo kofradiatan bilduriko habitat erdi sakabanatuko lurraldea, auzo gehienak ermiten inguruan antolaturik daudela.

Zulaibar baserria

Eskualdeko nekazari etxea, oso eza-guna baina inguruko baserriaren tipologiarekin bat ez datorrena. Izan ere, egituraren itxurazko hauskortasunaz gain, bi dira Arratiako baserriaren ezaugarri nagusiak: bizilekua dagoen solairuko egurrezko balkoi jarraitua, eta bertara igotzeko egurrezko eskailera, fatxadarekiko paraleloa. Zulaibar baserria ez bezala, Arratiakoa arotzeria-lana da, hargintza-lana baino areago. Hemen deskribaturikoak, harrizko eskailera axial bitxiak gain, armarria dauka, etxearen goragarri. XVIII. mendearen hasierakoa da.

Andra Maria eliza

Tenplu zabala, herriaren erdigunetik urrun. Orain dela gutxi osorik errestituratu da. Hiru habearteko eliza da, lau tarte eta burualde poligonala dituena. Mota ezberdinetako gangekin estaltzen da, hormen gainean eta gurutze formako sei pilareen gainean bermaturik. Teilaz estaliriko elizpea du inguruan, harrizko hesitxo eta zutoinen gainean bermaturik. Dorre sendoa dauka, oinaldean erdiraturik: fustek teilatuen altuera gainditzen du; kanpaien gorputza alakatua da, eta kupula du gainean.

Martin Olagibel hasi zen eliza eraikitzen, 1702an, baina obrak luze jo zuen. Barroko soila izan zen erabilitako estiloa.

Erretaula nagusia. Altzari bitxia da, mazoneria baino askoz zaharragoak diren istorio margotuak aprobetxatzen baititu. Zutabe salomonikoez eraturiko egitura handia da mazoneria, mahats mamitsuez eta laukitegi itxurako hobbiez hornitua. 1712 inguruan landu zen. Hogei margolan baino gehiago

Santa Isabel komentua

Zubizarraren beste aldean dago. Hiru tarte eta burualde karratuko habearte bakarrean atonduriko eliza neurritsua du. Itxura batean, funtzionaltasuna izan zen XVII. mendean tenplu txukun hau agindu eta marraztu zutenen araua. Kanpai horma liraina askoz geroagokoa da: Manuel Etxanobek egin zuen, 1178an.

Erretaula nagusia –polikromatu gabeko barroko salomonikoa– egituraren bertan dago dataturik: Jauregui 1714 (Jakobo Jauregi, gipuzkoar trazatzailea).

Multzoa osatzen duten gainerako komentu atalak modernoagoak dira, Eladio Iturriak komentua erabat erreformatzeko eginiko plan baten emaitza (1892).

daude: Ebanjelariak, herriak gurturiko santuak eta Jesusen nahiz Ama Birjinaren bizitzako istorioak irudikatzen dituzte. xvi. mendearen barruan data daitezke gehienak; seguru asko hiru artistak beste hainbeste datatan egindakoak dira. Horrez gain, tailla erromanistez osaturiko panelak daude pedrelan.

Andra Maria eseria da irudi titularra, xv. mendearen amaierakoa.

Otxandio

Barazar mendatea gainditu eta berehala, ezkerretara jo behar da Otxandiora iristeko. Baso bakartiak eta aisialdirako gunek zeharkatu behar dira, eta jarraian Done Martie ermita gotikoaren ingurua. Ondoren, errepidearen gaineko pagadi batean, Santa Marina elizaren dorrea altxatzen da ezkerretara, bost bat



126. orrialdea, goian:

Otxandio. Vulkanoren iturria. Suaren jainkoak oroitarri bat dauka herriko plazan. Ondo asmatutako alegoria, burdinolek garrantzi itzela izan baitzuten Otxandion.

126. orrialdea, behean:

Otxandioko Santa Maria eliza errenazentista. Haren dorre barrokoa gailen ageri da lautadan.

Orrialde honetan:

Otxandioko udaletxea. Nagusitasun kutsuko arkupea, ohikoa Euskal Herriko Kantauri isurialdean eta oso erabilia herrian.



kilometrotara, lautada mendean duen mugarrin baten antzera.

Hirigintza

Otxandio herria hiribildua da XIII. mendaren erdialdeaz geroztik. Kale bakarrean antolatzen da (Artekale), eta iparraldetik hegoaldera doazen errebal lineal banak luzatzen dute kale hori: Urigoiena eta Uribarrena. Erdian zabalgunea bat dago, Plaza Nagusia, eta bertan daude eraikin garrantzitsuenak.

Udaletxea

Estilo barrokoan egina (1730eko hamarraldia) eta oso ezaguna: aurre-

aldean, bost arkuko atarpea dauka behean, eta burdinazko balkoiak eta armarrak goian, oso noblea guztia. Barrualdean jatorrizko altzariren bat gordetzen du oraindik, hala nola egurrezko zeremonia-aulki bat.

Pilotalekua

Estali gabekoa eta harlanduzkoa. Plazako harreman eremuaren erdigunea da. Kristobal Bernaolak berritu zuen, 1857ean, Otxandioko errejidoreek «meritu handiko jokalarientzako» moduko kirol instalazioa nahi zutelako.

Paseu-leku

Pilotalekuaren parean, teilaz estaliriko arkupe bitxi bat dago, zutabe klasikoaren gainean bermaturik: erabilera askotarako gunea da, eta beheko solairuan bolatokia dauka. 1861eko proiektu neoklasikoa da.


Vulkanoren iturria

Arestian berritu da. Vulkanoren jainkoari eginiko omenaldia da, Otxandiorako guztiz egokia, mendeetan zehar iltzegintza izan baitzen herriko sutegi ugarien jardueraren nagusia. Txorrota prismatikoaren gainean Vulkanoren harrizko tailla altzatzen da, Martin Sarasibar gasteiztar akademikoaren proiektu neoklasikoaren arabera egina (1850).

Santa Marina eliza

Estilo errenazentistakoa da, XVI. mendekoa. Jatorrian hiru tarteko habearte bakarra zuen, gurutze gangaz estalia; horrez gain, burualde handia zuen, eta alboetan kapera garaiak. Askoz ere geroago, zabaldu egingo zen: habearte moduko batzuk jarri ziren alboetan, eta sakristia poligonal neoklasiko oso interesgarri bat erantsi zitzaion.

Batez ere, hainbat solairuko dorre garaia nabarmentzen da: eskudel aberatsak eta pinakuluak, kupula eta erremateko linterna aipa daitezke. Ignazio Iberok 1753an marrazturiko elementu barroko bikaina da.



Legenda

- Zein toki bisitatu ibilbide honetan
- Autopista
- Ibilaldiko errepidea
- Oinarrizko sareko errepidea
- Eskualdeko errepidea
- Tokiko errepidea

